

2007KO URTARRILAREN 25EKO

OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zazpiko urtarrilaren hogeita bostean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Gorka Lamy Insausti, Juan Manuel Serna Portugal eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Inazio Estensoro Eskisabel eta Xabier Arrasate Aierbe zinegotziak bertaratzen direneko uneak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Bilkurari hasiera eman ondoren eta eguneko gai zerrendako gaiekin hasi aurretik, alkateak esaten du eguneko gai zerrendan ez dagoen mozio bat aurkeztu nahi duela presazko izaeraz, Ibarretxe Lehendakariaren auzipetzea dela eta, aurkezten den mozioa hain zuzen ere.

Gaia aztertu ondoren eta bertaratutako guztien adostasunez, gaia presazko izaeraz eguneko gai zerrendan sartzea erabakitzen da.

I.- AURREKO AKTA.-

Jarraian bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2006ko azaroaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

Une honetan Inazio Estensoro Eskisabel zinegotzia bertaratu da.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUKO URBANIZAZIO PROIEKTUAREN 4. ZERTIFIKAZIOA.-

San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisasola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen laugarren zertifikazioa luzatu du. Lau garren zertifikazio honen zenbatekoa BERREHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA ETA

HOGIETA HAMAHIRU EURO eta HOGIETA ZAZPI ZENTIMOTAKOA (272.033,27 €) da. Lan hauek CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen laugarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

IV.- ARERIA ERAIKIN SOZIO-KULTURALAREN ERAIKUNTZAREN LEHEN ZERTIFIKAZIOA.-

Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen obra zuzendaritza daraman Jose Manuel Elizegi Sarobe arkitektoak lanen lehen zertifikazioa luzatu du. Lehen zertifikazio honen zenbatekoa HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMASEI EURO eta HIRUROGEITA BEDERATZI ZENTIMOTAKOA (78.256,69 €) da. Lan hauek ARERIA Aldi Baterako Enpresa Elkartea ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, Areria eraikin sozio-kulturalaren eraikuntza lanen lehen zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

V.- GOIEKIKO KAPITAL HANDITZEA ETA ESTATUTUEN ALDAKETA.-

Jarraian Osoko Bilkuraren onarpena jartzen da GOIEKI, S.A.k planteatu duen kapital handitzea, ondorengo akordio hauek hartzea proposatzen delarik:

LEHENA: HARPIDETUTAKO KAPITALAREN HANDITZEA, KREDITU BERTINKETA ERABILIZ Goierriko Ekimena S.A. elkartearen kontabilitatean, enpresaren sorreratik eta 2005eko abenduaren 31n bere kapital soziala osatzen duten Udalekiko zorrak daude islatuta, eta zor hauen zenbatekoa 724.207.31 € da.

Zenbateko hauek, elkarteak denboran zehar jasandako galerak konpentsatzea helburu duten Udalen ekarpenak dira.

Kreditu hauek, beraz, gaindituak daude eta likidoak eta galdagarriak dira.

Aipaturiko kredituak Fondo Propio bidez kitatu ahal izateko, 449.998.75€ko kapital zabalpena proposatzen da, aurreko akzioen moduan, 6.01€ko balio nominaleko 74.875 akzio nominatibo berri jaulkiz; eskubide berdinekin eta hamar mila eta bitik (10.002) laurogeita lau mila zortziehun eta hirurogeita hamaseira (84.876), biak barne, zenbakiturik hurrenez hurren.

Kapital handitze hau egin ondoren, Lazkaoko Udalak GOIEKI, S.A.n 10.798 akzio izango litzateke, hirurogeita lau mila zortziehun eta laurogeita hamabost euro eta laurogeita hemezortzi zentimoko (64.895,98 €) balio nominalarekin eta bere partaidetza elkartean %12,72 koa izango litzateke.

BIGARRENA: ESTATUTUEN ALDAKETA:

5. artikulua: Kapital Soziala BOSTEHUN ETA HAMAR MILA EHUN ETA LAU EURO ETA HIRUROGEITA HAMASEI ZENTIMOTAN (510.104.76€) geratuko da finkatuta, osorik harpidetuta eta ordainduta. Aipaturiko kapitala laurogeita lau mila zortziehun eta hirurogeita hamasei partehartze sozialetan banaturik ulertuko da, batetik (1) laurogeita lau mila zortziehun eta hirurogeita hamaseira (84.876), biak barne, hurrenez hurren zenbakiturik, sei euro eta zentimo batekoa (6.01€) bakoitza, eta banaezinak.

Une honetan Xabier Arrasate Aierbe zinegotzia bertaratzen da

Olaso zinegotziak (PP) esaten du proposatzen den akordioa ez duela ondo ulertzen eta abstenitu egingo dela.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 10 botu (EAJ, EA, PSOE), aurkako boturik gabe eta abstentzio batez (PP), honako akordioak hartzen ditu:

1.- GOIEKI, S.A.ren kapital handitzea egiteko akordio honen aurrekinetan azaltzen diren proposamenak onartzea.

2.- Alkateak ahalmentzea, GOIEKI, S.A.ren batzar nagusian Lazkaoko Udalaren izenean akordio honekin adostasuneko botua eman dezan.

VI.- LEHENDAKARIAREN AUZIPETZEA DELA ETA, MOZIOA.-

Alkateak ondorengo mozioa irakurtzen du:

"Euskal herritarrek emandako aginteari modu arduratsuan aurre egiteagatik, Ibaurretze lehendakaria kriminalizatuta, botere judizialak esparru politikoa inbaditu izanak eragindako politikaren muturreko judizializazioak atsekabetuta, Lazkaoko Udalak, "Euskal Erakundeek Alde" ekimenarekin bat eginaz honakoa adierazi nahi du:

Instituzio politikoei eta herritarren borondatearen ordezkari zuzenak direnei dagoen funtzioa mugatzea bilatzen duen justiziaren politizazioa salatzen nahi dugu, eta gure laguntasunik sendoena eta irmoena adierazi nahi diogu Lehendakariari, bere kontra Euskal Herriko Auzitegi Gorenak ireki duen zigor kausaren aurrean. Honek, bere oinarritzko eskubideak eta gure herrian eman beharreko ekimen politikoa zuzentzeko duen ardura instituzionala ezereztu nahi ditu.

Politika egiteko eskubidea aldarrikatu nahi dugu, judizializazioaren mehatxurik gabe; elkarriketa, eztabaida eta jarduera instituzional eta politikoa ezin baitira inoiz legez kanpokoak izan eta, are gutxiago, delituzkoak, arazoei konponbide zuzenak emateko.

Jakin badakigu larria dela justiziak demokraziaren zutabeen kontra, politika jardueraren egiteko eskubideen kontra eta gure instituzioen balorearen kontra eragindako erasoak; ondorioz, Lehendakariaren kontra irekitako zigor kausa arrazoi gabea berehala ixtea exijitu nahi dugu.

Akordio honen berri Euskal Herriko Auzitegi Gorenaren Presidenteari eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Presidenteari emango zaie."

Goenaga zinegotziak (EA) esaten du mozioaren alde bozkatuko dutela eta herritar guztiei manifestazioetan parte har dezaten gonbitea egiten dietela.

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du abstenitu egingo dela. Gaineratzen du alde bozka egitea nahiko lukeela baina arazo bat daukala eta arazo hori euskal instituzioetatik deitutako ekimenetara joaten datzala; gehitzen du egia dela bere alderdiko hainbat buruzagi ere zio berarengatik auzipetuta daudela baita ere, hau da Batasunarekin batzartzeagatik, eta zio horrek ez duela funtsik ulertzen duela eta bertan behera utzia izan behar litzakela eta espero dutela justiziak horrela egingo duela azkenean; ikusi duen arazoa emaitza horretan eragina izateko deitu den manifestazioan dagoela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du mozioaren sarreran honako hau esaten dela: "botere judizialak esparru politikoa inbaditu izanak eragindako politikaren muturreko judizializazioak atsekabetuta" eta berak hori ez duela ulertzen ze aurrerago, hirugarren puntuan esaten bada demokraziaren zutabeak botere judiziala, legegilea eta egikaritze botereak direla, eta bata bestearengatik independenteak direla nahiz eta zalantzak egon, ez dagoela botere judizialaren aldetik inolako inbasiorik, eta egiten den bakarra lehendakariaren jardura aztertzea dela, legezkoa ala legez kanpoko den jakiteko; esaten du baita ere "euskal herritarrek emandako agintearen erantzukizuna" jakin nahiko lukeela ea euskal herritarra esaten denean herritar nazionalista, ez nazionalista edo herritar guztiak esaten den, ze lehendakariak ezin duela nahi duela egin eta legearen pean egon behar duela; jakin nahi dena bere jarduketa legezkoa ala legez kanpoko den da eta inolaz ere ez kriminala den ezta gutxiago ere.

Estensoro zinegotziak (EAJ) Olaso zinegotziari erantzunez esaten dio bere mezuak pertsona bezala behar bada sinesgarritasuna izan dezakela baina mezu hori bere alderdi PPTik jasota, jadanik ez duela sinesgarritasunik, ze hainbeste erabiltze eta gehiegikeri egin du; gaineratzen du demokraziak beti duela zer hobetu eta boteren independentziarena horrela baldin bada ere, independentzia frogatu egin behar dela egunero eta praktikan. Eta herri honetako herritar asko dagoela botere hori independenttea denik sinisten ez duena, manipulaturik dagoelako eta zehaz esateko bere aldediaren aldetik (PPTik).

Serna zinegotziak esaten du asko harritu duela PPren ordezkariak esandakoak, ze oso ondo iruditzen zaiola berak hala pentsatzea baina gero ordezkatzeko duena ordezkatzeko duela, eta nahiko lukeela eta eskatuko liokeela, berak justiziari presiorik ez egiteko eskatu duen bezala beste horrenbeste eskatu dezaiola bere alderdiko dagozkien ordezkari estatu mailako nahiz autonomi mailakoak, justiziak halako edo bestelako erabakirik hartuko ez balu zer gertatuko litzakeenari buruz aritzen direnean.

Gaiari buruz beste hainbat interbentzioren ondoren Serna zinegotziak enmendakina sartzea eskatzen du eta esaten du mozioaren alde bozkatuko lukeela baldin eta "Euskal Erakundearen Alde ekimenarekin bat eginaz" esaldia kenduko balitz.

Alkateak, mozioaren aurkezle gisa, bere alderdikideekin enmendakina aztertu ondoren, mozioa bere horretan mantenduko dutela adierazten du.

Guzti honen ondoren gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 9 botu (EAJ, EA), aurkako botu bat (PP) eta abstentzio batez (PSOE) mozioa onartzea erabakitzen du.

VII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Alkateak esaten du datorren hilean ohikoa baino lehen ez-ohiko osoko bilkuraren bat egitea posible dela.

VIII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogeit gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.